

Euskal AEko turismo-gastua suspertu egin da 2021ean, eta 3.000 milioi eurotik gorakoa da

Turismo-jarduera BPGren % 4 izan zen, eta Gipuzkoa nabarmentzen da, % 5,2ra iritsi baitzen

Eustatek landutako datuen arabera, 2021ean, COVID19ak eragindako osasun-krisiak markatutako bigarren urtean, Euskadiko turismo-gastua 3.143 milioi eurokoa izan zen, 2020an baino 421 milioi gehiago. Datu horrek, aurreko urtearekin alderatuta, % 15,5eko hazkundera adierazten du, baina ez dira 2019ko zifrak berreskuratu.

Turismoaren Kontu Satelitea Turismoaren Mundu Erakundearen metodologiaren arabera egiten da (TME, EUROSTAT, ELGA, 2010), eta **turismoaren hainbat parametro ekonomiko zenbatzen ditu, bai eskaintzaren ikuspegitik, bai eskariarenetik**, bi ikuspegiak integratuz eta lotuz Kontabilitate Nazionalen gainerako jarduera ekonomikoak kuantifikatzeko erabiltzen direnekin.

2021eko emaitzak turismo-gastua osatzen duten agregatuak suspertzeko fasean ulertu behar dira. Bi agregatuek aldakuntza positiboak dituzte, eta **Turismo hartzailea** nabarmentzen da. Gastuaren osagai horretan sartzen da atzeritik eta Espainiako gainerako lekuetatik etorritako pertsonen Euskadin egindako turismo-gastua, eta % 26,5eko hazkundera izan zuen, 2020an izandako beherakada handiaren ondoren (- % 60,3). **Turismoaren bestelako osagaien** artean sartzen dira Euskal AEko egoiliarrek Euskal AEn bertan egiten duten turismo-gastua, bai eta administrazio publikoek turismoarekin lotutako programetan egiten duten gastua eta turismoaren berezko jarduera-adarren inbertsioa ere, eta adierazi behar da susperraldi motelagoa izan zuela (% 6,8), nahiz eta gogoratu behar den 2020an ere beherakada txikiagoa izan zuela (-% 25,8).

Turismoak Euskal AEko ekonomiari egindako ekarpena. Milaka euro eta BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa. Uneko prezioak. 2010-2021

	2010	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021(a)
Turismoko gastu guztia	3.632.144	4.355.670	4.632.752	4.766.068	4.887.607	5.084.280	2.721.823	3.142.889
Turismo hartzailea	1.887.771	2.484.045	2.732.718	2.820.536	2.932.810	3.036.341	1.202.793	1.520.909
Turismoaren beste osagai batzuk	1.744.373	1.871.625	1.900.034	1.945.532	1.954.797	2.047.939	1.519.030	1.621.980
Turismo gastua (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Turismo hartzailea	52,0	57,0	59,0	59,2	60,0	59,7	44,2	48,4
Turismoaren beste osagai batzuk	48,0	43,0	41,0	40,8	40,0	40,3	55,8	51,6
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa								
Turismoko gastu guztia	5,4	6,3	6,5	6,4	6,3	6,4	3,8	4,0
Turismo hartzailea	2,8	3,6	3,8	3,8	3,8	3,8	1,7	1,9
Turismoaren beste osagai batzuk	2,6	2,7	2,7	2,6	2,5	2,6	2,1	2,1

Oinarria 2015


(a)Aurrerapena

Iturria: Eustat. Turismoaren kontu sateliteak

Turismo igorlearen susperraldia turismo hartzailearena baino dinamikoagoa izan da

Turismo hartzailearen kasuan bezala, turismo igorlean ere eragin nabarmena izan zuen 2020ko osasun-krisiak. Bi magnitudeak urtebete lehenago lortutako balioen erdira baino gutxiagora murriztu ziren. 2021ean bi magnitudeek izan zituzten aldakuntza positiboak, baina bien hazkunde-erritmoa ezberdina izan zen. **Turismo igorlearen** portaera dinamikoagoa izan zen; izan ere, 2020an % 51,7 behera egin ondoren, 2021ean 1.225 milioi berreskuratu zituen, hau da, % 53,4ko tasa. Bestalde, **turismo hartzailea** % 60,4 jaitsi zen 2020an, eta 318 milioi baino ez zituen berreskuratu, aldakuntza % 26,5ekoa izanik. Datu horien arabera, saldo turistikoa 2020an -1.085 milioikoa izatetik 2021ean -1.992 izatera igaro zen.

Euskal AEko turismo-fluxuen saldoa



Turismo-gastuak Euskal AEko hiru lurralde historikoetan egin du gora

Turismo-jarduera hiru lurraldeetan suspertu da. Turismo-gastuan 2021ean izandako hazkundera % 17,7koa izan da Araban, % 17,5ekoa Gipuzkoan eta % 12,6koa Bizkaian.

Gipuzkoa Euskal AEko turismo-gastuan pisurik handiena izateagatik nabarmentzen da, % 43,3koa, alegia, Bizkaikoa baino zertxobait altuagoa (% 41,7), eta Arabari gainerako % 15,0 dagokio. Datu horien arabera, Gipuzkoaren pisuak zazpi hamarren egin zuen gora aurreko urtearekin alderatuta, jarraian Arabarenak beste hiru hamarren, eta Bizkaiaarenak, aldiz, puntu batean egin zuen behera.

Turismoak lurralde bakoitzean, bertako BPGri dagokionez, duen pisuari dagokionez, hautematen da hiru lurralde historikoetan egin duela gora aurreko urtearekin alderatuta; turismoak Gipuzkoan egiten dio ekarpenik handiena bertako aberastasunari, % 5,2, alegia, eta igoera 4 hamarrenekoa izan da. Araban ekarpena % 3,8koa da, hiru hamarren gehiago, eta Bizkaiko igoera hamarren batekoa da, bertako BPGren % 3,3koa izanik.

Turismoak Euskal AEko ekonomiari egindako ekarpena, lurralde historikoaren arabera. Milaka euro eta BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa. Uneko prezioak. 2010-2021

	2010	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021(a)
Turismoko gastu guztia								
Euskal AE	3.632.144	4.355.670	4.632.752	4.766.068	4.887.607	5.084.280	2.721.823	3.142.889
Araba/Álava	508.500	612.728	642.301	655.759	662.360	676.772	399.461	470.383
Bizkaia	1.579.983	1.928.156	2.050.133	2.140.156	2.196.957	2.263.742	1.163.321	1.310.455
Gipuzkoa	1.543.661	1.814.786	1.940.318	1.970.153	2.028.290	2.143.766	1.159.041	1.362.051
Turismo gastua (%)								
Euskal AE	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100	100
Araba/Álava	14,0	14,1	13,9	13,8	13,6	13,3	14,7	15,0
Bizkaia	43,5	44,3	44,2	44,9	44,9	44,5	42,7	41,7
Gipuzkoa	42,5	41,6	41,9	41,3	41,5	42,2	42,6	43,3
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa								
Euskal AE	5,4	6,3	6,5	6,4	6,3	6,4	3,8	4,0
Araba/Álava	4,8	5,5	5,5	5,5	5,4	5,3	3,5	3,8
Bizkaia	4,6	5,6	5,7	5,7	5,7	5,6	3,2	3,3
Gipuzkoa	7,0	8,0	8,2	8,1	7,9	8,0	4,8	5,2

Oinarria 2015

(a)Aurrerapena

Iturria: Eustat. Turismoaren kontu sateliteak

Oharra: 2020ko datuak gainbegiratu dira eta behin-betikoak dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62